

**MaLaS CoMPañiaS-ek
auRKeZteN du**

UKeLeLe



JauNaReN

iKuSkiZuNa

AleloP!



ZIRKOa KaLean



AuRKeZPeN MoDuRa



Kale ikuskizun honek zirkoa plazetara hurbiltzea du helburu, karpa erraldoi eta muntai korapilatsuetatik ihesi, Euskal Herriko enparantza ezberdinetako asperraldiarekin amaitu eta zirkoa euskaraz eskeintzeko asmoz. Ukelele jaunak bere bakarkakoan zirko trebetasun ezberdinak proposatzen dizkigu, dena bere umore zorrotzarekin ondo josia, beraz hemen duzue zuen herri edo auzoko jaietarako ikuskizun aproposa, umila eta lotsagabea



BaiNa NoR DeMoNTre Da UkeleLe Jauna ?



Ez pentsa erreza izan denik galdera honi erantzuna aurkitzea. Bere ingurunean galdetu dugu eta Mikel Pikatza edo Mikelele bezala ezagunagoa den xelebre honi buruz zera esan digute.

Amak 1980.eko Abuztuaren 27ko goizean mundura ekarri zuela kontatu zigun, hamaika sufrimendu ta gero gustora geratuko zen emakumea! -txikitan ez zuen batere gerrarik emoten,pentsa semea nuenik ere ahaztu nuen! Gero bai, egun batian unibertsitatea utzi ta zirkora zihoala erran zidanean, ay!.. (malkoartean) hori ez zaio ama bateri egiten.

2003.an abogadutzak eman ziezaioken ibilbide itxaropentsu zein etorkizun erosoari uko egin eta Iruñako Oreka zirko eskolara joan zen. - Pitzadura tamainakoa zuen, pentsa 3 urtez egon zela eskola horretan burubelarri zirkoarekin jotake- esan zigun Mikeleleren gaztaroko lagun batek -eta hortik hegoamerikara joan zen mutila, zeharo pitzatuta aidanez! - Bere azkenengo neskalagunaren hitzetan -Zertara joan zela amerikara kokolo hori? Bazterrak nahaztera seguru! Zirko ikuskizunak antolatzen zebilela diote, ez dakit, horrek lanean jarri baino lehen edozer, ongi dakidana zera da, parez pare

BeRe iBiLbiDe aRTiStiKoa

Hasteko, aipatu mikelelek zirkoarekin izandako lehen kontaktua 2001-02 ikasturtean izan zela, Erandioko Alzaga ikastolan zirko txokoaren begirale moduan aritu baitzen. Hemen sortu omen zitzaion benetan zirkoan aritzeko grina.

2003-04 ikasturtea iada Iruñako Oreka zirko eskolan igaro zuen eta hiru urteetan zehar malabareak, klowna, akrobazia eta orekak bezalako arloetan oinarri sendo bat lortu zuelarik. Denbora honetan klaseak ezezik bere lehenengo esperientzia eszenikoei ere aurre egingo die, kurtso bukaerako ikuskizunetan, 2004-05 ean etb1 eko “Triki-traka triki-tron” Txirri, Mirri eta Txiribitonen saioan artista gonbidatu moduan egindako bost agerraldietan, eta 2005 eko udan Iruñako “Yarleku” antzerki taldearekin “Numenes” izeneko lanarekin egindako hamabost bat emanaldietan.

Baita ere aipagarriak dira bere kaxa egindako lehenengo ekoizpen apalak, Barakaldoko gaztetxean bi urtez zirko Skabetxeren ikuskizunak eta 2004 eta 2008 an bere auzoko jaietarako egindako “Panoli anaien” kale ikuskizunak.



AmeRiKan

2006. Urtean mikelelek lurra hartu zuen hegoameriketara eta burubelari jarri zen bere formakuntza sakontzen, Brasil eta Argentinako zenbait zirko eskola eta akrobazia zein antzerki irakasleekin lanean. Urte horretan ere Malas Kompañias taldea sortu eta bere lehenengo lana ekoiztu zuen, "Barriendo voy" ikuskizuna alegia, zeinekin 30 emanaldi eman zituzten kultur etxe eta "Variante"-tan.

2007 bukaeran "Ukelele jauna" ikuskizuna prestatu zuen Argentinako pailazo ezagunen laguntzaz eta Uruguayko kostaldera joan zen lanera. Punta del este eta Piriapolis-eko plazetan 50 emanaldi eskeini zituen hegoaldeko uda horretan,

Euskal Herrian

2008 ko Maiatzerako mikelele bueltan zen eta iritsi bezain lastrer lanari ekin zion. "Ukelele jauna" k 30 emankizun eskeini ditu Euskal herrian, herri zein auzo ugari jaietan eta baita ere zenbait jaialdi ospetsuetan, Tafallako "Va de calle", Palenciako "Muestra internacional de teatro de calle" n edota Lehioko "Umore azokan.



iKUSKiZuN

a



Zer esan dezakezu ikuskizun honi buruz? Ba lehendabizi bakarkako kale ikuskizuna dela, argentinar kale artisten eragina nabariarekin baina euskaldun peto-peto baten ikusmiratik sortua .Mikelelek bere bakardadean, bere apaltasunean eta bere lotsagabekerian zirko trebetasunez betea dagoen ikuskizun umoretsu eta partehartzailea dakarkigu. Boluntarioen laguntzaz jolas dibertigarri ta zirikatzaileak proposatzen dizkigu bere “jirafa” monozikloaren gainean, baita ere suzko malabareekin urteetako lana eta akrobazia arriskutsu ta ikusgarriak eskeiniko dizkigu. Beraz ez da haur-antzerkia, honek ez du esan nahi hurrek ez dutela ulertu eta goxatuko, ikuslego zabal batentzat aurreikusia dela baizik. Hori bai, txikitxuentzako ez da oso aproposa, ez baitira ez umoreaz ez trebetasunetaz ia ohartzen.

Ikuskizunak 40 minutu inguru irauten du . Teknikoki ez du bitarteko haundirik behar, 2000W jasango dituen 220v-ko argi artune bat

Ta BuKaTzeKo...



MUXU HAUNDI
BAT
GUZTIONTZAT!!

**Aio pelaio, txao bell@s agur
benur**